

7.- FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresak mugikorrak ekoiztu ahal izateko dugun lan-talde prestatua ezinbestekoa da. Enpresako bost bazkideok dena antolatu eta prestakuntza bikaineko langileak kontratatu ditugu, Xiaomi enpresa famatuarekin elkarlanean.



LANORDUAK

Lan orduari dagokionez, geure enpresaren ordutegia honako hau izango da:

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:

- **Goizez:** 9:00 - 13:00
- **Arratsaldez:** 15:00 - 19:00


LARUNBATETAN:

- **Goizez:** 9:00 - 14:00

IGANDE ETA JAIEGUNETAN:

- Itxita. Nahiz eta gure webgunea 24orduz martxan dabilen egunero, eskariren bat egun hauetan egin nahi bada.

ABIAN JARTZEKO BALIABIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOAK



BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisiko ugari beharko ditugu. Enpresako furgonetan propioa izango dugu gure bezeroek internetetik eskatutako mugikorrak garraiatu ahal izateko eta gure produktuak errazago zabaldu ahal izateko. Gainera, hainbat makina, altzari eta tresna beharko ditugu. Eguzki plakak guri komeni zaigun tamainan mozteko makina eta mugikorrei eguzki-plakak txertatzeko makina espezializatua, besteak beste.

BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

Gure enpresak teknologikoarekin zerikusia daukanez, gailu eta sistema informatikoen garrantzia handia edukiko dute gure enpresan. 50 ordenagailutik gora edukiko ditugu eta horiek izango dira gure ekoizpenaren ardatz. Alde batetik, gure lehengaien hornikuntza egokia kontrolatu eta mantentzeko, eta bestetik, gure webgunea kontrolatu eta bere funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

LOKALA

Bi lokal nagusi edukiko ditugu Arratzua-Ubarrundian kokatuta. Lokal bat fabrika edo ekoizpen gunea izango da, eta bestean ofizina joango dira. Bertatik tramite burokratikoak eta eskariak koordinatuko ditugu. Eskari, salmenta, erosketa... guztiak ofizinatik bideratuko ditugu, eta enpresako idazkari, zuzendaritzak eta diruzainak ere ofizinatako lokalean izango dituzte beraien bulegoak